

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia

**DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA**

**Foru Gobernu Kontseiluaren 14/2023 Foru Dekretua, apirilaren 25ekoa. Onestea Arabako Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskunde prozesuko baliabide materialak zehazten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 28ko 9/2023 Foru Dekretuaren aldaketa**

2023ko maiatzaren 28an Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeak egingo dira, haien data eta epeak eta udal hauteskundeak berberak izanik.

Arabako Batzar Nagusien hauteskundeetarako deia egin zuen administrazioa denez, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 28ko 9/2023 Foru Dekretuaren bidez, Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskunde prozesuko baliabide materialak zehaztu ziren, hauteskunde prozesuen arauketa osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/99 Errege Dekretua erreferentzia hartuta, hauteskunde prozesuan zehar erabili beharreko boto txartelen, gutun azalen, akten eta gainerako inprimakien ereduak arautzeko orduan.

Aipatutako foru dekretuaren ondorioz, ereduak batzuk eguneratu egin ziren azken hauteskunde prozesuetan lortutako esperientziaren arabera, hizkuntzaren erabilera inklusiboa eta ez-sexista sartuz eta 605/1999 Errege Dekretuan jasotzen diren eranskinen eguneratzeak eginez.

Hori horrela izanik, eta kontuan hartuta martxoaren 29ko INT/316/2023 Agindua, hauteskunde prozesuen arauketa osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuaren eranskinak aldatzen dituen (2023ko apirilaren 1eko BOE), martxoaren 28ko 9/2023 Foru Dekretuaren III. eranskineko SM. JG ereduak aldatu behar da, aipatutako Agindura egokitzeko eta, era horretan, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 100. artikulua laugarren apartatua hitzez hitz ezarritakora egokitzeko; izan ere, horren arabera, mahaiburua, bokalen eta ikuskatzaileen sinadurak gurutzatuko du gutun azala bere garaian ireki beharko den zatia.

Horregatik, esandako guztia kontuan hartuta, diputatu nagusiaren proposamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egun egindako bileran aztertu ondoren, hau

**XEDATZEN DUT**

Bakarra. Arabako Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskunde prozesuko baliabide materialak zehazten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 28ko 9/2023 Foru Dekretuaren III. eranskineko SM. JG ereduak aldatzea.

Arabako Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskunde prozesuko baliabide materialak zehazten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 28ko 9/2023 Foru Dekretuaren III. eranskineko SM. JG ereduak foru dekretu honen eranskinean ageri denak ordeztuko du.

**AZKEN XEDAPENA**

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 25a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kabinete eta Komunikazio zuzendaria*

**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**

**ARABAKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK 2023**

**ERANSKINA**

**EREDU BEREIZIA, ARABAKO BATZAR NAGUSIETARAKO 2023ko MAIATZAREN 28ko HAUTESKUNDEETAN ERABILI BEHARREKOA.**

SM.JG Lehen auzialdiko epaitegian edo bake epaitegian edo postako langileari eman beharreko agirien gutun azal zerbakiak –sepiak–.

Egitaraziak, balidatzen diren arabar erakundearen  
<https://e.s.araba.eus/portal/consultacoe>

Egitaraziaren kodea Código de verificación  
**V5XQ-6IUm-LkKt-tfFz**



34/16

## Arabako Batzar Nagusietarako Hauteskundeak

### Elecciones a Juntas Generales de Álava

URTEA

AÑO

GUTUN AZAL ZK.

SOBRE N.º

LURRALDE HISTORIKOA TERRITORIO HISTÓRICO	HAUTESKUNDE BARRUTIA EDO KUADRILLAK CIRCUNSCRIPCIÓN O CUADRILLAS	UDALERRIA MUNICIPIO	ERROLDA BARRUTIA DISTRITO CENSAL	ATAIA SECCIÓN	MAHAIA MESA
ARABA / ÁLAVA					

.....ko ..... epaile  
andreak/jaunak, adierazi den hauteskunde mahaiko mahaiburua,  
mahaikideek eta artekariek, EGIAZTATZEN DUGU:

Gutun azal honetan ondoko agiriok daudela:

#### 1. GUTUN AZALAK:

- Mahaia eraketa aktaren hitzez hitzeko kopia.
- Bilkuraren aktaren jatorrizkoa, berari dagozkion hauteskunde agiriak erantsita dituena.
- Boto emaleen zerrendaren kopia.
- Boto txartel baliogabeak edo erreklamazioen bat izan duten boto txartelak.

#### 2. eta 3. GUTUN AZALAK:

- Mahaia eraketa aktaren hitzez hitzeko kopia.
- Bilkuraren aktaren hitzez hitzeko kopia.

MAHAIBURUAK, MAHAIKIDEEK ETA ARTEKARIEK gutun-azal hau sinatuko dute, beren sinadurek bere garaian ireki beharreko hegala gurutzatzen dutela.

Sra. Jueza / Sr. Juez ..... de .....  
el Presidente o Presidenta, Vocales e Interventores/as de la referida Mesa Electoral CERTIFICAMOS:

Que este sobre contiene los siguientes documentos:

#### SOBRE 1:

- Copia literal del Acta de Constitución de la Mesa.
- Original del Acta de la Sesión, con los documentos electorales a que se haga referencia.
- Lista numerada de votantes.
- Papeletas de votación nulas o que hayan sido objeto de reclamación.

#### SOBRES 2 y 3:

- Copia literal del Acta de Constitución de la Mesa.
- Copia literal del Acta de la Sesión.

LA PRESIDENCIA, VOCALÍAS E INTERVENTORES/AS firmarán este sobre de forma que sus firmas crucen la solapa por la que en su día deba abrirse.

